

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Konponketa-lanak amaitu dira Beorburura (Txulapain) sartzeko errepidean

Obrek 280.000 euroko kostua izan dute

Viernes, 26 de julio de 2013

Sustapen kontseilari Luis Zarraluquik berriki Beorburura (Txulapain) sartzeko NA-4222 errepidean amaitu diren konponketa-lanak bisitatu ditu gaur. Gune hori kaltetuta geratu zen urteko lehen hilabeteetan izandako euriteengatik. Konponketen zenbatekoa 280.000 eurokoa izan da.

Eurite horien ondorioz, hondoratze eta luizi batzuk gertatu ziren 0+150 KParen inguruan. Udalerrira sartzeko bide bakarra zenez, obrak premiazkoztat jo ziren eta martxoan ekin zitzaizkien.

Konponketaz arduratu den enpresa Construcciones Mariezcurrena SL izan da eta honako jarduketa hauek egin dira: indusketa, saneamendua lubetako hondoratutako gunean harri-lubetak jarritz, kaltetutako zeharkako drainatze-obrak birjartzea, gune guztian zanga drainagarriak egikaritzea, bide-zorua birjartzea eta balizatzea nahiz seinalezatzea.

Oskotzeko Estazio Meteorologiko Automatikoko datuen arabera, gunetik hurbilen dagoena, urtarrilean pilatutako prezipitazio-kopurua 477 litrokoa izan zen metro koadroko, historikoki 114 litroko batez bestekoa izan denean. Otsailean, 334 litro pilatu ziren metro koadroko historikoko 101 litroko batez bestekoa izan denean.

Jarduketan xehetasuna

Zehazki, lau jarduketa egin dira:

1. jarduketa: 0+150 kilometro-puntuan, errepidea hondoratuta zegoen eusteko harri-lubeta erori egin zelako. Mugimendu horrek errepidea gurutzatzen duen zeharkako drainatze-obrak egonkortzea eragin zuen, hormigoizko hodiak apurtuz. Arazo horri irtenbidea eman zaio harri-lubetako horma bat eraikiz, 3 metroko sakonera baino gehiagora zimendatuz, arkugainera saneatuz eta ingurua drainatuz.

Gainera, kaltetutako zeharkako drainatze-obra kendu da eta diametro handiagoko (800 mm) hormigoizko armatu batek ordeztu du. Obrak segurtasunez egikaritzeko, eta zirkulazioari eusteko saihasbide bat egin



Ezkerretik eskuinera, esleipendun enpresako Javier Mariezcurrena, Obren Ataleko buru Salvador Mariscal eta Zarraluqui kontseilaria jada amaitutako NA-4222 errepidean.

zen zagor artifizialarekin ezkeraldeko finkatik.

2. jarduketa: 90 bat metro luzeko zati batean, lubetako kanpoaldea mugitu egin zen, eta horrek asfaltoa pitzatzea eta uhinbikoa iraultzea ekarri zuen. Hori konpontzeko lubetako kanpoaldea saneatu zen. Xede horrekin, asebetetako material ezgauza kendu eta gutxienez metro bateko lodierako material-geruza zabaldu zen. Ondoren, bide-zoruen paketea berriz jarri zen, 25 cm zagorarekin eta 10 cm nahasketa bituminosekin.

3. jarduketa: 45 bat metro luzeko zati batean, luizi bat gertatu zen eta horrek errepidearen zati bat zatitu eta finkatzea eragin zuen. Eroritako errepide-atala berriz jarri ahal izateko eusteko horma bat eraiki zen harri-lubetarekin.

4. jarduketa: asfaltoa erabat pitzatuta zegoen errepide guztian zehar, zenbait gunetan. Lehendik jada petatxatu ziren gunetako batzuk berriz ireki ziren. Pitzaduren ikuskapen bisuala egin ondoren, haiek bi taldetan banatu ziren: artekatzei lotutakoak, bide-zorua osorik saneatzea behar zuena eta plataforma berri bat egikaritzea, eta fresaketei lotutakoak, non errodaduraren geruza fresatzeko erabakia hartzen den berriz jartzeko. Puntu horiek guztiak konponduta, zolaketa, balizatze eta seinaleztatzeko lanak egin dira.



NA-4222 errepidean egindako obren irudia.